

**I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA**

Arabako Foru Aldundia

**LURRALDE OREKAREN SAILA****Foru Gobernu Kontseiluaren 248/2022 Erabakia, apirilaren 26koa. Onestea Kontseiluaren maiatzaren 25eko 313/2021 Erabakiaren bidez deitutako laguntza lerroaren deialdiaren ebazpena**

Ekainaren 27ko 21/2013 Foru Arauak obra txikiak gauzatzeko programa arautzen du III. tituluan.

19. artikuluan xedatutakoari jarraituz, Foru Gobernu Kontseiluaren maiatzaren 25eko 313/2021 Erabakiaren bidez onetsi zen Arabako toki erakundeei programa horren kontura laguntzak emateko 2022ko deialdia, zeina ALHAOn argitaratu baitzen, 59. zenbakian, 2021eko maiatzaren 31n.

Erabaki horrek bigarren xedapenaren bigarren puntuan ezarritakoaren arabera, "Hasierako finantza hornidura kuantifikatuta dago Arabako Foru Aldundiaren 2022rako aurrekontuan berariaz edo era osagarrian obra txikien/auzolanen gauzatzea finantzatzeko jasotzen diren partiden hasierako esleipenen batura bezala. Zenbateko horiek handitu ahal izango dira beren hasierako horniduraren ehuneko 50era arteko kopuruaz. Dirulaguntzak emateko, ezinbestekoa izango da partidan kreditu erabilgarria egotea".

Arabako Lurralde Historikoaren 2022rako Aurrekontua Gauzatzeari buruzko abenduaren 21eko 33/2021 Foru Arauan xedatutakoari jarraituz, foru aurrekontua onetsi zen, eta honako partida hauek esleitu ziren:

10203. G/459100/76800100	Obra Txikiak Egitea	1.753.717,00 euro.
10203. G/459100/76800101	Osagarria: Obra Txikiak	989.592,00 euro.

Horren ondorioz, aurretik aipatutako laguntza programa finantzatzeko partiden zenbatekoa, hasiera batean, 2.743.309,00 eurotan jotzen da.

Egindako eskaerak aztertu ondoren, Tokiko eta Udalerriaz gaindiko Azpiegituren Sustapenaren eta Finantzaketaren Zerbitzuak, prozeduraren instrukzio organoa den aldetik, txostena egin du, zeinaren arabera, diruz lagungarritzat jotako jarduketa guztiak diruz lagunduak baitira, eta eman beharreko zenbatekoa 2.604.946,15 eurokoa da, hau da, erabilgarri dagoen aurrekontuko zuzkidura baino txikiagoa. Sortutako soberakinari dagokionez (138.362,85 euro), zerbitzu horrek proposatu du 49.882,28 euroko zati bat bideratzea diruz lagungarritzat jotzen diren jarduketak, auzo harremanak sustatzeko ekimenei buruzko 2022ko deialdiaren babesean eskatutakoak, finantzatzera. Hori guztia, auzo harremanak sustatzeko ekimenetarako eta obra txikiak gauzatzeko laguntza programak arautzen dituen 21/2013 Foru Arauak 3. artikuluan ezarritakoarekin.

Aipatutako txostena eta kide anitzeko organoaren akta aztertu dira. Horregatik, Lurralde Orekaren Saileko foru diputatuaren proposamenez, eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, hau

**ERABAKITZEN DUT**

Lehenengoa. Obra txikiak egiteko 2022ko deialdirako esleipena 1.061.836,15 euroz handitzea, Foru Gobernu Kontseiluaren maiatzaren 25eko 313/2021 Erabakiaren bigarren xedapeneko bigarren puntuan xedatutakoari jarraituz.

Bigarrena. Onestea I. eranskinean zerrendatzen diren Arabako toki erakundeei laguntzak ematea, obra txikiak egiteko 2022ko deialdiaren kontura. Laguntza horiek adierazitako zertarakoetarako eta zenbatekoetan emango dira eta, guztira, 2.604.946,15 euro egiten dute.

Hirugarrena. Toki erakunde onuradunak dirulaguntza onartu duela joko da baldin eta, 15 egun balioduneko epean, erabaki hau ALHAOn argitaratzen denetik aurrera, ez badu aurkezten dirulaguntzan atzera egiteko idazkirik Arabako Foru Aldundiaren Lurralde Orekaren Sailean.

Laugarrena. Arabako Foru Aldundiaren 2022ko aurrekontuko "10203. G/459100/76800100 Obra Txikiak Egitea" partidaren kontura esleituko dira dirulaguntzak.

Bosgarrena. Toki erakundeak, obra hasi aurretik, udal lizentzia izan beharko du, hori nahitaezkoa denean, edo udalerriko hirigintza aholkularitzaren ardura duen teknikariaren txostena.

Seigarrena. Toki erakundeak, aurreko puntuan adierazitako baldintzak betetzen dituen obra lizentziaz gain, organo eskudunen autorizazioak, baimenak edo aldeko txostenak bidali beharko dizkio Lurralde Orekaren Sailari, egin beharreko jardunak sektoreko legeriaren baten eraginpean baldin badaude. Dirulaguntza ordaintzeko, aipatutako baldintza bete beharko da.

Zazpigarrena. Emandako dirulaguntza ez da inola ere handituko.

Zortzigarrena. Obrak egiteko epea 2022ko azaroaren 30ean amaituko da. Epe bera izango da justifikazio dokumentuak aurkezteko. Salbuespen gisa, horretarako ahalmena duen Lurralde Orekaren Saileko titularrak berariaz onetsi beharko duen justifikazioa aurkeztu ondoren, obraren exekuzioa amaitzeko eta exekuzio hori justifikatzen duten agiriak aurkezteko epea luzatu ahal izango da, 2022ko abenduaren 31ra arte, baina ezingo da data horretatik aurrerako luzapenik eman.

Bederatzigarrena. Erakundeak bere gain hartu beharko du obraren finantzaketa osoa.

Hamargarrena. Finantza eta Aurrekontu Zuzendaritzak ordainduko du dirulaguntza, Tokiko eta Udalerriaz gairik Azpiegituren Sustapenaren eta Finantzaketaren Zerbitzuak laguntzak justifikatzeko agiriak onetsi ondoren. Agiri horiek modu telematikoan aurkeztu beharko dira Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoan eskura dagoen berariazko izapidearen bidez (<https://egoitza.araba.eus/es/-/obras-menores>), eta honako hauek dira:

Fakturak eta/edo obra ziurtagiriak, dirulaguntzaren onuraduna den toki erakundearen ize-nean jaulkiak.

Erakunde onuradunak fakturak onetsi izanaren ziurtagiria.

Erantzukizunpeko adierazpena, jasotzen duena emandako laguntzaren egiaztagiriak (Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoaren bidez aurkeztuak) bat datozela fidelki jatorrizko agiriarekin, zeinak erakunde onuradunaren legezko egoitzan baitaude.

Erakundeak, justifikazio agiriarekin batera, enpresari egindako ordainketen egiaztagiriak aurkeztu ahal izango ditu. Une horretan aurkezten ez baditu, bi hilabete izango ditu, gehienez ere, ziurtagiriak aurkezteko, dirulaguntza jasotzen duenetik aurrera.

Eskatutako egiaztagiriak ez badira helarazten aurreko paragrafoan adierazi den epe horretan, hasiera emango zaio dirulaguntza eta berandutze interesak itzultzeko dagokion prozedurari.

Instrukzio organoak, laginketa tekniken bidez, egokitzen jotzen dituen justifikazio agiriak egiaztatuko ditu, eta, horretarako, hautatu diren jatorrizko gastuen eta ordainketen egiaztagiriak bidaltzeko eskatu ahal izango die onuradunei.

Hamaikagarrena. Ez ematea dirulaguntzarik obra txikiak gauzatzeko 2022ko programaren kontura II. eranskinean zehazten diren erakundeei, ekainaren 27ko 21/2013 Foru Arauaren hainbat artikulutan xedatutakoa aplikatzearen ondorioz.

Hamabigarrena. Lurralde Orekaren Saileko foru diputatuari ahalmena ematea behar adina egintza burutu eta behar adina xedapen eman ditzan, espediente hauek izapidetzeko.

Hamahirugarrena. Erabaki hau ALHAOn argitaratzea.

Hamalauugarrena. Erabaki hau behin betikoa da administrazio bidean eta bere aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkeztu ahal izango da zuzenean Gasteizko administrazioarekiko auzietarako epaitegian, bi hilabeteko epean, ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Hori guztia, Administrazioarekiko Auzietarako Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legeak 46. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritz.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko apirilaren 26a

*Diputatu nagusia*

**RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE**

*Lurralde Orekaren Saileko foru diputatua*

**IRMA BASTERRA UGARRIZA**

*Lurralde Orekaren zuzendaria*

**JESÚS MARÍA GUINEA DÍAZ DE OTALORA**



ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN ALDIZKARI OFIZIALA

2022ko apirilaren 29a, ostirala • 49 zk.

2022	2033	A.B	MENAGARAI-BOETEGI	Menagari-Boetegiako edateko uraren altako sarearen hodieraren zati bak konponetzea	34.967,09	28.898,42	20.547,23
2022	2018	A.B	MENDIGUREN	Basabasterna bidea egokitzea	10.749,16	10.749,16	6.993,72
2022	2005	A.B	MENDIUR	Gizarte etxeko estalkia beritzea	29.973,79	29.870,79	20.940,15
2022	2098	A.B	MJANÇAS	Ihurtaren ingurunea egokitzea eta orotop arkielektioak kentzea	34.680,00	34.680,00	22.652,98
2022	2188	A.B	MOLINILLA	San Martin elizaren baruko hormak konponetzea (Molinilla)	34.770,56	34.770,56	22.690,64
2022	2072	A.B	MONASTERIOGUREN	Botokaren estalkia	34.852,07	34.852,07	22.705,40
2022	2160	A.B	MONTOIA	Edukiortzen eremua zolatzeta eta itzea	11.469,19	10.040,72	9.039,75
2022	2100	U	MOREDA ARABA	Las Cabras bidea erakitzea	22.204,96	16.558,85	13.816,89
2022	2097	A.B	MURGIA	Murgiako bide zaharra berreskuratzea eta egokitzea	34.985,11	23.853,93	18.163,83
2022	2102	A.B	MURUA	Lorategi eremua banku bat jarri egokitzea	6.984,98	6.984,98	6.086,48
2022	2184	A.B	NABASGA	Haurmentzako parkera estaltzea	34.078,44	34.078,44	22.495,04
2022	2138	U	NAVAREDAS	Fonu Aldondo etxebizitzako zoladura konponetzea	34.908,98	17.518,89	14.445,72
2022	2054	A.B	NAVARRETE	Anariztearen itxura zabalitzea	3.226,82	3.226,82	2.904,14
2022	2021	A.B	OCIO	Ocio (Araba) herriko kuztegia birgaltzea (lehenengo fasea)	29.614,16	28.086,40	20.197,94
2022	2151	A.B	OKARIZ	Bidea zolatzeta	34.831,18	34.831,18	22.698,07
2022	2015	U	OKONDO	Uztar gortelak herriko eta lurrunak aldatzea	34.990,09	34.990,09	22.749,43
2022	2142	A.B	OLANDI	Biltegiak herriko sare orokorreanoko hornidura beritzea	24.891,15	24.891,15	18.695,46
2022	2002	A.B	OPELLORA	Opellorako Mendiko suzoko kuztegia birgaltzea	19.788,33	17.023,70	14.125,64
2022	2101	A.B	ORIBISO	Herraitxikiko errepidea egokitzea	34.860,10	34.860,10	22.707,83
2022	2094	A.B	ORLAINA	Bizitaren eremua kalea konpondu eta zabalzea	33.933,20	33.933,20	22.121,24
2022	2183	A.B	OSMA	Hurbunak Osmako andel erregulazailerainoko hornidura sare beritzea	34.661,67	34.661,67	22.647,36
2022	2039	A.B	OTAZU	Gizarte etxeko estalkia konponetzea	15.219,38	15.219,38	12.903,08
2022	2081	A.B	OTEO	Eliz plazako hormak margotu eta konponetzea	5.362,72	5.362,72	4.828,45
2022	2050	A.B	OTSOGUREN	Itxura konponetzea	12.560,69	8.976,41	7.988,77
2022	2096	U	OTYON-DION	Andre Maria Zuzenre kalea berrantolatzea (lehenengo fasea)	34.988,76	11.458,60	10.142,52
2022	2149	A.B	OZEKA	Peina konponetzea	3.377,71	3.377,71	3.039,94
2022	2121	A.B	PAGOETA	Hutuztegi estalkia eta umesala birgaltzea	24.162,86	24.162,86	18.324,42
2022	2089	U	PERACERRADA-URIZAHARRA	Udal zerbitzuen erakunde estalkia birgaltzea (zerbitzu antzeko lokala, interpretazio zentroaren lokala eta koroak eta udalera deia)	21.848,56	21.848,56	17.074,96
2022	2176	A.B	PINEDO	Zoladura eta eustorma konponetzea	29.185,10	29.185,10	20.667,40
2022	2082	A.B	PIPAON	Barne eskalera txukuntzea (obra txikia)	15.996,20	15.996,20	13.437,42
2022	2185	A.B	QUINTANILLA	Herriko eta gizarte etxeko ateak aldatzea	3.605,80	3.605,80	3.243,22
2022	2007	A.B	QUINTANILLA DE LA RIBERA	Konzejuaren erakina margoitza, bermatzea eta lehoak beritzea	5.375,93	5.375,93	4.838,34
2022	2103	A.B	RIBABELLOSA	Bidea egokitzea	17.469,38	17.469,38	14.417,59
2022	2099	A.B	SABANDO	Herritxo hormak eta harriz apalak konponetzea	7.405,20	7.405,20	6.864,68
2022	2127	A.B	SALCEDO	Sabandoko apalazteko konponetzea	8.919,21	8.919,21	6.027,29
2022	2154	A.B	SALMANTON	Bidea garbitu eta egokitzea	2.156,00	2.156,00	1.940,40
2022	2075	A.B	SANTA CRUZ DEL FIERRO	Bideak mantentzeko lanak egitea	13.180,40	13.180,40	11.443,17
2022	2082	A.B	SANTIKURUTZE KANPEZU	Bujanda bidea konponetzea (bigarren fasea)	34.793,74	34.793,74	22.687,70
2022	2024	A.B	SANTURSE	Bidearen mantentze lana egitea	11.858,00	11.858,00	10.451,98
2022	2123	A.B	SARATZ	Derechazo-San Nikolas-Santursetako zubirako sarbideak hobetzea	34.862,22	27.542,98	19.954,54
2022	2050	A.B	SARRA	Euri urri kanalizazio konponetzea Sarrako zenbait gunetan	10.440,90	10.440,90	9.350,78
2022	2182	A.B	SOXO	Gizarte etxeko sabaia konponetzea eta ingurunea egokitzea	7.351,98	4.499,99	4.049,99
2022	2104	A.B	TERTANGA	Batzararen erakunde forjatu ordetara gizarte etxeko egokitzeko (bigarren fasea)	34.999,33	34.999,33	22.749,80
2022	2074	A.B	TOSERA	Estalkia birgaltzea	34.993,85	34.993,85	22.746,15
2022	2172	A.B	TOBILLAS	Gizarte etxeko lehoak aldatzea	13.588,30	13.588,30	11.741,88
2022	2080	A.B	TRESPUENTES	Trespuedeko gizarte etxeko hazetasunak aurkitzea eta konponetzea	18.479,68	18.479,68	15.064,69
2022	2189	A.B	TUESTA	Edukiontzak estaltzeko zureko euskarriak jarzea	29.269,90	15.500,10	13.097,57
2022	2137	A.B	ULLIBARRI-ARRAZUA	Gizarte etxeko egokitzea	34.860,36	34.860,36	22.716,98
2022	2105	A.B	ULLIBARRI-GAMBOA	Herriko faltsak zaharberitzea	22.203,59	22.203,59	17.273,60
2022	2109	A.B	URARTE	Urarteko eskolaren aurrealde zolatzeta	6.484,52	7.105,98	6.395,38
2022	2129	A.B	URIBARRI HARANA	Edarteak eta harlangailuzko horma konponetzea	7.585,49	7.585,49	6.826,94
2022	2078	A.B	URIBARRI-JUREGI	Lantegiaren egokitzea	34.980,72	33.793,03	24.237,10
2022	2042	U	URIBARISTAZ	Edukiontzak estaltzeko sistema instalatzea, edukiontzien kokalekuak egokitu eta itxi	34.977,98	29.363,50	20.741,35
2022	2128	A.B	URTURI	Urturi bidea egokitzea	23.156,26	23.156,26	17.794,14
2022	2146	A.B	VALLUERCA	Edukiontzak estaltzeko zureko euskarriak jarzea	13.358,40	11.880,06	10.466,70
2022	2087	A.B	VILLABEZANA	Errotara sartzeko bidea konponetzea	24.252,94	24.252,94	18.370,89
2022	2179	A.B	VILLAMADERNE	055-114-101 Cabo bidea (luzera = 854 m) eta 055-314-105 Espejorako bidea (luzera = 468 m) egokitzea	34.972,03	34.972,03	22.741,80
2022	2079	A.B	VILLAMBROSA	Elizaren inguruko lurrak egokitzea eta arripeko jurturak betetzea	9.889,99	8.889,99	6.900,99
2022	2175	A.B	VILLANUEVA DE VALDEGOVIA	Herritxiko zoko konponetzea San Martin lekuak hainbat lekutan	34.976,27	20.942,21	16.556,45
2022	2051	U	ZALDUENDO	Zumarrateko bidea konponetzea (061-000-1)	34.863,58	34.863,58	22.738,89
2022	2038	U	ZAMBRANA	Gizarte etxeko lehen solairuko zerbitzu antzeko aretoa egokitzea	34.490,55	34.490,55	22.594,57
2022	2043	A.B	ZESTAFE	Hutuztegi estalkia teiak aldatzea	5.997,73	5.997,73	5.397,96
2022	2185	U	ZIGOTIA	San Roke baztertzako bidea egokitzea	34.792,59	34.792,59	22.687,35
2022	2112	A.B	ZUHATZA	Haurmentzako parkera eta alizeak kontzejuaren elizaren inguruan	26.363,80	26.363,80	19.499,57
2022	2171	A.B	ZUHATZU DONEMILLAGA	053-330-2 Solondo bidea eta 053-330-104 Aniolako bidea konponetzea eta mantentzea	34.317,43	34.317,43	22.540,57
2022	2164	U	ZUIA	Murgiako Bea plazako haurmentzako jolasgunea beritzea eta hobetzea	34.911,87	34.911,87	22.723,48
					3.942.952,83	3.611.522,80	2.604.946,15

Exp.: Espaldere  
J.A.: Juru Administratiba  
A.: Auzantzerio



## II ERANSKINA. OBRA TXIKIAK. 2022an UKATUTAKO DIRULAGUNTZAK, EKAINAREN 27ko 21/2013 FORU ARAUA APLIKATUZ

URTEA	ESP.	ERAK. MOTA	ERAKUNDEA	OBRA	ARRAZOIA
2022	2145	A.B	ABERASTURI	Bizikletak aparkatzekoak jartzea	21/2013 Foru Arauaren 17.3.c) artikulua
2022	2076	A.B	ANDOIN	Gizarte etxeko estakian plaka fotovoltaikoak jartzea	21/2013 Foru Arauaren 15.2 artikulua
2022	2181	A.B	ANUNTZETA	A3322 errepeidean (21+670 KP), bidera sartzeko egokitzapen obra gauzatzea	21/2013 Foru Arauaren 15.2 artikulua
2022	2111	A.B	ARESPALDITZA	Lezaube errekan gaineko zubia konpontzea	21/2013 Foru Arauaren 15.2 artikulua
2022	2047	A.B	CAICEDO YUSO	Aireko hartuarearen ordez, lurpekoa eraikitzea, ur publikoko zundaketa egitea eta biltegia elikatzea	21/2013 Foru Arauaren 15.2 artikulua
2022	2027	U	ESKUERNAGA	Eskuernegako San Torcuato kalearen ondoko kalekaren hiri egokitzapena	21/2013 Foru Arauaren 15.2 artikulua
2022	2056	A.B	GAMIZ	Jolastokia egokitzzea	21/2013 Foru Arauaren 17.2 artikulua
2022	2144	A.B	GAZTELU	Jolasgunea egokitzzea	21/2013 Foru Arauaren 17.3.c) artikulua
2022	2023	A.B	LUKIANO	Kaleen izena duten informazio kartelak egitea	21/2013 Foru Arauaren 15.2 artikulua
2022	2187	A.B	OLABARRI	Lokala birgiltzea administrazio-batzarenaren biltegirako	21/2013 Foru Arauaren 17.2 artikulua
2022	2106	A.B	PÁGANOS	Blasteri kaleko zoladura berritzea	21/2013 Foru Arauaren 17.3.f) artikulua
2022	2107	A.B	QUINTANA	San Andres kaleko adar bateko oinarziko zerbiltzuak eta zoladura	21/2013 Foru Arauaren 15.2 artikulua
2022	2006	A.B	RETES DE LLANTENO	Retesuso bidea zabaltea	21/2013 Foru Arauaren 17.2 artikulua
2022	2016	U	SAMANEGO	Samaniegoko 4. poligonoko (El Ocho) 76. lurtzia zolatztea	21/2013 Foru Arauaren 15.2 artikulua
2022	2114	A.B	SOBRÓN	Kalea hormigoiz konpontzea Sobron Gokoan	21/2013 Foru Arauaren 23. artikulua
2022	2117	A.B	TROKONIZ	Abiadura munitzekoak instalatzea	21/2013 Foru Arauaren 15.2 artikulua
2022	2133	A.B	TUYO	Autobus geltokia eraikitzea	21/2013 Foru Arauaren 15.3 artikulua
2022	2131	A.B	UNTZA-APREGINDANA	Ur homidura aldatzea Angulicon	21/2013 Foru Arauaren 15.2 artikulua
2022	2077	A.B	URRUNAGA	Argiteria publikoa LED argiak erabiliz berritzea	21/2013 Foru Arauaren 15.2 artikulua

Exp.: Expediente  
 J.A.: Junta Administrativa  
 A.: Ayuntamiento